

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2019ko maiatzaren 18tik 24rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria 2019/05/20

- EBAZPENA, 2019ko apirilaren 2koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita Osakidetzako Garbiketa Zerbitzuko enpresa esleipendunen sektore-hitzarmen bakarreko soldata-taulak onartzen dituen akordioa erregistratu, argitaratu eta gordailutzea; akordio horrek ondorioak izango ditu 2019ko urtarilaren 1etik aurrera, eta batzorde paritarioaren ordezkari sindikalen onarpena du (hitzarmenaren kode-zk.: 86002115012003). **2368 xedapena - 4 or.**
- EBAZPENA, 2019ko apirilaren 26koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita Eusko Jaurlaritzako zentroetako zerbitzuak ematen dituzten garbiketa-enpresa emakidadunen eta langileen soldatak eguneratzeko eta atzerakinak (2013-2018) ordaintzeko akordio partziala erregistratu, argitaratu eta gordailutzea (hitzarmenaren kode zk.: 860100013012013). **2369 xedapena - 4 or.**

Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 2019/05/21

- Erabakia Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko Lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko farmazia-bulegoen sektoreko Hitzarmen Kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48000965011981). **23 or.**

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2019/05/22

- Ebazpena, 2019ko maiatzaren 10ekoa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez zuzentzen diren igeltsu, eskaiola, kare eta horien aurrefabrikatuen fabrikatzaile-sektorearen Estatuko VII. hitzarmen kolektiboa erregistratu eta argitaratzen duen 2019ko urtarilaren 22ko Ebazpenaren akatsak. **2019-7607 xedapena - 3 or.**
- Ebazpena, 2019ko maiatzaren 21ekoa, Idazkariordetzarena, zeinaren bitartez argitaratzen den Segurtasunaren Estatu Idazkaritzaren, Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkaritzaren, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzaren Zuzendaritza Nagusiaren arteko hitzarmena, Gizarte Segurantzaren esparruan iruzur eta delitugintza ekonomikoa jazartzeko. **2019-7612 xedapena - 10 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2019/05/20

- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO MINISTERIOA. – Hidrokarburoak.** - Ebazpena, 2019ko apirilaren 15ekoa, Energiaren Estatuko Idazkaritzarena, zeinaren bitartez zehazten diren bizitza-zikloko negutegi-efektuko gasen emisioen intentsitatearen Estatuko batez besteko balioak, motozikleta eta ibilgailu elektrikoek kontsumitutako elektrizitateari dagokionez. **2019-7517 xedapena - 2 or.**
- **JUSTIZIA MINISTERIOA. - Merkataritza erregistroak. Urteko kontuen ereduak**
 - Ebazpena, 2019ko maiatzaren 22koa, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez onesten den Merkataritza Erregistroan urteko kontu bateratuak aurkezteko eredu berria, horiek argitaratzeko betebeharra duten subjektuentzat. **2019-7681 xedapena - 2 or.**
 - Ebazpena, 2019ko maiatzaren 22koa, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez aldatzen diren urteko kontu bateratuak argitaratzeko betebeharra duten subjektuentzat horiek Merkataritza Erregistroan aurkezteko eredu berriak onesten dituen martxoaren 21eko JUS/319/2018 aginduaren I., II. eta III. eranskinak. **2019-7682 xedapena - 4 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2019/05/20

- **LEHENDAKARITZA.** - 6/2019 LEGEA, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena. **2359 xedapena - 43 or.**

2019/05/21

- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA.** - HUTS-ZUZENKETA, honako dekretu honena: 62/2019 Dekretua, apirilaren 9koa, animalien elikaduraren sektorearen erregistroari eta kontrol ofizialari buruzkoa. **2384 xedapena - 1 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2019/05/24

- **SAILA (BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA).** - Arabako Errepideen Plan Integrala 2016-2027 aldirako, martxoaren 20ko 6/2019 Foru Arauaren bidez onetsia (2019ko apirilaren 3ko ALHAOn argitaratua, 41. zk.) **1553 xedapena - 1367 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2019/05/24

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA**
 - Bizkaiko Foru Aldundiaren 55/2019 FORU DEKRETUA maiatzaren 21ekoa, Irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga-araubidea eta mezenasgorako zerga-pizgarriak aplikatzeko Erregelamendua onesten duena. **15 or.**
 - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1045/2019 FORU AGINDUA, maiatzaren 21ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren urriaren 5eko 1740/2017 Foru Agindua (haren bidez, bi eredu hauek onetsi dira: 036 eredua, enpresaburuek, profesionalek eta atxikitzailleek zentsuko alta-, baja- eta aldaketa-aitorpenetarako aurkeztu beharrekoa; eta 037 eredua, enpresaburuek eta profesionalek (pertsona fisikoek) zentsuko aldaketa-aitorpenerako aurkeztu beharrekoa). **17 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2019/05/20

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 239/2019 Foru Agindua, maiatzaren 15ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 22ko 173/2015 Foru Agindua, «Berotegi efektuko gas fluordunekin egindako eragiketen aitorten laburbiltzailea» izeneko 586 eredua onartu eta hura aurkezteko modua eta prozedura ezartzen dituen. **3241 xedapena - 4 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - 48009 BILBAO